

Gaur hemen egotea nahi zuten, gure burua montaje guzti hau ahalbidetu izan duten instituzio burges eta eskirolen aurrean entregatzea nahi zuten. Auzitegi hauek izan ziren duela bi urte greba batean emandako istilu batzuegatik norbaiti “zigor eredugarria” ezarri behar ziotelako auziperatu gintuztenak.

Atxilotu gintuztenetik gaurdaino, bide luze eta astuna izan da gaur hemen ez egotera ekarri gaituena. Denbora guzti honetan astero sinatu behar izan dugu epaitegietan, froga faltsuetan oinarritutako auzi batean murgildu gintuzten, zipaio bat bestearen atzetik entzun behar izan genituen epaiketari gu inkulpatzen... eta epaiketaren ostean sententziaren zain, errekurtsorearen zain, eta azkenengoz kartzelaratzeko aginduaren zain. Guzti honek 2 urtez gure bizitzak eta maite gaituztenen bizitzak baldintzatu ditu, proiekturik eraikitzeko inolako aukerarik gabe.

Gure bizitzen gaineko erabaki ahalmena eduki nahi izan dute, eta gaur hemen bi urtez espetxera joateko aurkeztea hartu nahi zuten beste erabaki bat zen. Baina ez diogu inori gugatik erabakitzen utziko. Beste eredu sozioekonomiko baten alde kalean borrokatzeagatik atxilotu gintuzten, Euskal Herri libre, sozialista eta feminista bat eraikitzen genbiltzalako. Eta horretan jarraitzen dugu.

Egoera berean egon diren eta dauden beste hamaika euskal herritarrek bezala, desobedientziaren aldeko hautua egin dugu. Desobedientziaren bidea hartu dugu ez ditugulako instituzio arrotz hauek legitimatuko, desobedientzia audientzian epaituak izaten ari diren 28 gazteek bezala justizia eta legearen artean justizia aukeratzen dugulako, desobedientzia herri oso baten erabakia delako.

Gutun honekin bukatu aurretik, ez dugu eskertu gabe utzi nahi gertutik zein urrunetik gure ondoan egondakoen elkartasun eta babesa; Euskal Herri libre, sozialista eta feminista eraikitzeko bide zail eta luze hau eder bihurtzen duzuelako. Eta, nola ez, ezin ditugu bidelagun izan diren Irantzu eta Aitor ahaztu. Mila esker guztiei! Laster kalean ikusiko dugu elkar!

Urtzi Martinez eta Jon Telletxea